

Noaua!!



Iaz, zabor gutxiago sortu eta
gehiago birziklatu genuen



Saioa Erro,
baserri galdezka

Baserritarren bizi-egoera zein den aztertzea da bere lana


teapaindegia



Egunero Irekita
Ordutegia : 9.00 - 19.00

✓ **Laser depilazioa**

Zubialaurrena 4, **USURBIL** ☎ 943 361 951



urte

Urtetik urteak zuzen
 urteak zuzen

Santu Guztien Egunean



Erramuak,
 zentruak, koroak eta
 landaretan auliera
 zabala hemen
 aurkituko duzu



Egun osoan zehar zabalik!

Urtinea Lorategia

San Guztien Eguna
 943 361 951 - Fax 943 361 952
 C/teapaindegia 4, Zubialaurrena 4, Usurbil

Txirrikitutik !!

Zubietako erriberetan, Oria ibaiaren ertzean kokatzen da Irurubieta baserria. "Usurbilgo baserriak eta baserritarak" liburuan aipatzen denez, garai batean errota izan zen eta bertan, gutxi gorabehera, XV. mendearen erdialde arte Irurubieta familia bizi izan zen. 1700ean erre egin zen eta berriz eraberritu behar izan zuten. Beranduxeago baserria saldu eta bi zatitan banatu zuten; zati bat Zubietako Komunitateak erosi zuen eta beste zatia Josseph de Yrarreta Zubiaurrek. Gaur egun dagoen etxe berria eraiki arte, Irurubieta baserria bi etxebizitzakoa izan da. Leku zoragarrian kokatua dagoen arren bertan bizi izan direnak beti izan dute kezka bat: uholdeak. Uholdeak zeuden bakoitzean baserria beti urak harraipatzen zuten. 1953ko uholdeetan urak hiru metroko altuera izatera iritsi zela gogoratzen du bertan bizi izan zen Joxe Domingo Martijak. Honen ondorioz, bertako maizterrak alde egin zuen eta baserria hutsik geratu zen, erori arte. 1998an zutik geratzen zena bota eta gaur egun dagoen etxe berria eraiki zen.

Zalao Arnaiz Ibarguren
 zalao@usurbil.com



Irurubieta baserria, Zubietako Argazkia: Usurbilgo udalak argitaratutako 1996ko egutegiko argazkia

OHARRA: Aurreko Txirrikitutik ataleko argazkiaren inguruan egindako hutsegitea dela eta, zuzenketa bat egin behar dut. Bertan agertzen diren bi herritarren izenak gaizki jarri nituen. Okerrak zuzenduz hona hemen zuzenketa: Iñaki Urkia (atabala) eta Juan Kruz Atxega (txistua eta ttunttuna).

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordenberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 Tlf: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkari koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zalao Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Denberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Aritz Gorriti.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA! IDATZI HORJETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA! ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazirako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

SAIOA ERROREKIN SOLASEAN **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**

2005EKO BIRZIKLATZE-DATUAK **9. OR.**

LOURDES JAUREGIBERRIREN HITZAK **10. OR.**

AZAROAREN 5EAN ERLE EGUNA **13. OR.**

ENDIKA ABRIL TXAPELKETAREN FINALAZ **15. OR.**

GRIPEAREN AURKAKO KANPAINA **16. OR.**



Usurbilgo Udalak




Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



AITOR LANDALUZE

Bahitutako oroimenak

Orain dela gutxi, lagun bat Askatasuna plaza bete betean ikusten den etxe batera bizitzera joan zaigu. Bixta earrak!. Leihotik begira ego-reko duen zaletasuna aprobetxatuz, nire sormen hutsunak betetzeko informatzaile gisa kontratatu nuen. Hutsune horietako egoera batean nengolarik honekin etorri zait.

Irailaren 17an, Irrati itxi eta geroxeago, dagoeneko usurbildar guztiak ohean ginenean, haize zurrumbilo batek laño itxi eta astun bat ekarri zuen. Laño horren artean izpiritu edo arima delako talde bat Askatasuna plaza etortzen hasi zela sumatu zuen.

Lehenik bidea libre zutela egiaztatzeko Zubietako Berridi baserrian kuartela jarri zuten milizianoak. Errepublikako banderaren atzetik, 36ko udararen kondarretan Eibarko gazte hauek garai hartako indar militar sendoenetako baten aurka borrokatzera etorri ziren, baina Txaldatxur mendian lagun bat galdu ondoren hanka egin behar izan zuten.

Bidea garbi ikusi zutenean besteak etorri ziren. Usurbildarrak denak, aurretik begiak estalirik fusilatuak, batzuk ezagunak ditugu: Furundarena, Yaguez,

Aizpurua,... Ondoren frentean eroritakoak; Kaximiro Aginaga, "Panadero"... beste hainbatekin. Hauen atzetik kate astunekin preso egondakoak, Ondarretan, Burgosen, El Dueson... Azkenik eta tropel handian errealitate horretatik kanpo egon arren faxisten eraso zikin hark aurretik eraman zituenak: umeak, zaharrak, gaixoak, bonbardeotan bide bazterretan edota atzerriko "errefuxiatu eremueta" hildakoak...

Nire konfidenteak kontatu didanez, aterpean bildu ziren. Halako batean, Berridiko milizianoak plazan "desplegatu" eta paretak apaintzen dituzten buztineko txakur aingeru txori eta abarren artean zerbaiten bila hasi ziren, batek "Topatu dot!" oihukatu zuen arte. Eskua aterpearen izkina batera zuzentzen zuen, sagardo botatzailearen gainean hain juxtu eta denak, izpiritu izan arren urduri, bere ondora hurbildu ziren.

Orduan milizianoak Intxortetara bueltatzea erabaki zuten. Usurbildarrak hantxe geratu ziren, 70 urte ondoren oroimen galduen erbestetik ekarri dituen plaka xumea irakurtzen. Banan bana irakurri eta ondoren inguruko eserlekutan eseri ahala izpiritu arima edo delako horiek lañoekin bat eginez desagertuz joan ziren.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas

Ika-mika

Zer da normala?

UHLren partehartzea ahalik eta modu normalizatuenean ahalbidetzen saiatu gara. Komisioetako atek irekiak izan dituzte baina ez dira etorri". Hitz hauekin erantzun zuen, joan den astean Luis Mari Ormaetxeak, gure taldeak udalean aurkeztutako eskaera, alegazio eta mozioak zergatik ez dituzten erantzuten NOAUA!k egin zion galderari.

Jakin nahi nuke zeri deitzen dion partehartze normalizatua.

Udal korporazioaren legitimitatea zalantzan jartzea ez du onartzen eta hori da, hain zuzen ere, partehartze normalizatua izateko lehen urratsa. 1.200 herritar udaletik kanpo uztea da normala ez dena. Ormaetxeak, bere taldeak eta baita EAJk ere ondo baliatzen dute horren-

beste arbuiazen omen duten Alderdien Legea.

Komisio irekiak ez dira beraiek inbentatutakoak. Aurreko korporazioak udal jarduera ahalik eta demokratikoena izateko eta herritarren partehartzea bultzatzeko ezarri zuen funtzionamendu hori. Hori bai, oso bestelako ordutegiekin, batez ere, udal plenoetakoak. Zeren, nork du eguerdiko 13.00ean plenora joateko aukera? Hori al da partehartzea bultzatzeko ordutegi normala? Nire taldeko kideak joaten diren ala ez begiratu baino, hobe luke berak zuzentzen duen korporazioko hainbat zinegotzien partehartzea kontrolatzea. Haiek, guk ez bezala, posible baitute lantokitik irtetea eta galdutako lan orduengatik kalteor-

dainak jasotzea. Badira, gainera, beren disonibilitateagatik soldata jasotzen dutenak ere.

Azkenik, niri aitortzen dizkidan "merituak" taldean egindako lanarenak direla esan behar dut. Errekonozimendua guk ordezkatzan dugun herritarrei zor diela uste dut eta ez, berak ezarritako ordutegi kontuengatik, bere aurrean ikusten duenari. Gure ordezkaritza politikoa eta egiten dugun lana aintzat hartzen duenean, ezker abertzalearekin interlokuzio normalizatu bat izatea posible izango da. Horrela, berak dioenez, sentitzen duen tristura (!) ez du izango.

Arantxa Manterola, UHLko hautetsia

Baserriz baserri galdezka

Usurbilgo udalak sustatu duen azterketa bat egiten ari da Saioa Erro

Saioa Erro herritarra laster hurbilduko da landa lurretako etxebizitzetara. Behemendik eta Usurbilgo Gizarte Zerbitzuek eremu horretako biztanleriari buruzko azterketa soziologikoa egin nahi dute.

NOAUA! Nondik dator landa lurretako biztanleriaren azterketa soziologikoa egiteko asmoa?

Saioa Erro. Behemendik, Donostialdeko Landa Garapen Elkarteak, Oartzunen egin zuen azterketa. Landa lurretan gabeziak zeudela ikusi zuten, gehienbat, hirugarren adinekoen artean. Orduan, Behemendik Usurbilgo udaleko Gizarte Zerbitzuei azterketa hori egiteko asmoa proposatu zien. Beste bide batzuetatik begiratuta, Ataunen ere egin zela jakin dut. Lezon, Alegian, Tolosan eta Bizkaia aldean ere egiten ari dira. Astuariasen ere horren inguruko plan bat egina dute.

SAIOA ERRO

“Landa eremuan bizi den biztanleriaren egoera sozio ekonomikoa eta bizi-kalitatea ezagutu eta haien ongizate beharrak aztertu nahi dira”

N. Ikerketa zertan oinarritzen da?

S. E. Usurbilgo landa eremuan bizi den biztanleriaren egoera sozio ekonomikoa eta bizi-kalitatea ezagutu eta haien ongizate beharrak aztertu nahi dira. Bestalde, gizarte baliabide publikoek buruz duten informazioa zabaldu eta zerbitzu horien eskaerak egin eta normaltasunez hartzeko aukera eskaini nahi da. Zerbitzu hauek denon

eskubideak baitira eta denengana iritsi behar baita.

N. Landa lurretako bizilagunek Gizarte Zerbitzuak urrun ikusten al dituzte?

S. E. Bi baserritan bakarrik izan naiz. Baina beste esperientzietan ikusitakoaren arabera, Gizarte Zerbitzuak urrun ikusten dira. Medikuekin hitz egitera joan nintzenean, hark esaten zuenez, landa eremuko biztanle askok laguntza eskatzeko oso gaizki egon behar dute. Askok kostatzen zaie horrelako zerbitzuetara jotzea. Ahal den neurrian, dutenarekin konformatu eta beren kasa moldatu nahi izaten dute. Baina laguntza horiek denontzat dira, denok ordaintzen ditugu.

N. Azterketa gauzatzeko baserriz baserri ibiliko zara. Zer da haiekin egin nahi duzun lana?

S. E. Dagoeneko eskutitzak bidali dira. Telefonoz deituko dut, joango naizela jakinarazteko. Behin joanda, egin nahi den lanari buruzko aurkezpena egingo dut. Jarraian, inkesta bat pasako zaie; haien egoera zein den ikusteko. Horren bidez, Gizarte Zerbitzuei buruz zer dakiten edo zer ez dakiten jakingo dut. Zer dagoen azaldu eta haien proposamen eta oharrrak jasoko ditut. Bide batez, duela hamar bat urte egin zen baserriek buruzko lana eguneratu nahi da. Orduko hartan, baserriko lanei buruzko informazioa jaso zen. Lehendik eginda dagoen kopiarekin joango naiz. Zer aldaketa izan diren galdetuko diet, lehengo datuak eguneratzeko.

N. Azterketa egiteko, landa lurreko biztanleen laguntza ezinbestekoa izango duzu.

S. E. Derrigorrezkoa. Lasai hartzeko



SAIOA ERRO GAZTEA.

esan nahi nieke. Haien bizitza pribatuari buruz ez dut ezer jakin nahi. Haien bizi egoera zein den jakin nahi dut soilik, ahal den neurrian hori hobetzeko.

N. 2007ko martxora arte luzatuko da azterketa hori, ezta?

S. E. 170-180 baserrietara iritsi nahi da. Denboraren arabera izango da baina denetara ailegatu nahi genuke. Ez dira baserriak bakarrik; garai batean baserriak izanik, egun etxebizitzan bihurtu dituztenak ere hor daude.

N. Bildutako datu eta oharrekin zer egiteko asmoa izango zenukete?

S. E. Udalarik proposamena egitea. Jarraipenik ez izateko azterketa bat egiteak ez du ezertarako balio. Behemendiren asmoa, azterketa hori bultzatu eta landa lurretan ikusten diren gabeziak betetzea da.

TXOKOALDE

ALOÑA LOIDI

Pilarikako zubia



Badakit jende askok nahiz eta urriaren 12an jai egin ez duela zubirik izan. Baina beste askok, nik bezala, jai izan zuten lau egunez. Beste askok berriz ez dute jai egunik izan, izan ere, ideia politikoak direla medio lan egitea aukeratu dute. Niri oso ongi iruditzen zait azken hau eta errespetatzen dut baina ongi iruditzen ez zaidana da, Pilarika eguna jai egin ez dutenek egun horren ordeztu beste egun bat jai hartzea. Urriaren 12a bakoitzaren pentsaera dela eta lan egin duenak ez luke egun hori "komodin" bezala hartu eta beste egun bat jai egiteko aprobetxatzeko aukerarik izan behar. Ederra litzateke beste la familiartekoren bat urtarrilean ospitalizatu eta jai tokatzen diren bi egunak ez aprobetxatzeagatik abuztuko oporrak bi egunez luzatzea, ezta?

Askok lau egun hauek kanpora oporretara joateko aprobetxatu nahi izaten dituzte eta egun osoko bidaiak egiten dituzte. Hori egiteak ba al du zentzurik? Lau egunetatik bi bidaiatzen pasatu beharrean ez al da hobe gertuago dagoen herriren batera joatea? Gustukoa dugu urrutiko lekuak ezagutzea baina, Euskal Herrian ere badira hainbat eta hainbat leku ezezagun eta zoragarri.

Dena den, bakoitzak ikusten du nora joan, noiz eta zenbat egunetarako. Nik jai izan dudana arren ez naiz hemendik atera eta inguruko lekuak ezagutzen jarraitu dut. Nahi zuenak izan zuen Nafarroa Oinez-era joateko aukera ere eta NOAUAko irakurle bat baino gehiago bertan izango ziren ziur aski.

KALEBERRI

ENEKO HARREGUY

Bost gaztetxo



Bost gaztetxorekin egon naiz, ez orain asko. Hamahiru bat urte izango zituzten gehienek. Akaso, bateren batek bat gehiago. Bi mutil eta hiru neska. Erljioa ikastetxeko gaia baldin badute ere, ez dirudi munduaren sorrera Jainkoarengan jarrita sinisten dutenik. Jaio. Bizi. Hil. Prozesua ez dute hiru hitz horietatik haratago ikusten. Jaio, jaio dira; hil, hilko dira; eta bizi?

Bizi... ez ditut bizitzaren udaberrian dauden haur hauek loratu nahi dutenik ikusten bizitza honetan. Ikusten ditut gaurkoa ikusten dutela. Gaurkoa, baina ez hemendik lau ordurakoa. Momentu-momentukoa. Zer daukat orain? Ikusi dut ez dutela ondorenean -hurbilekoa bada ere- asko pentsatzen. <<Zer gustatzen zaizue?>> galdera arruntari zer erantzun eman jakiteke geratu dira.

<<Zer izan nahi duzue handitan?>> galderak bostetik baten erantzuna bakarrik izan du: <<Injineru, arkitektu, edo polizia. Baina amak ez dit uzten polizia izaten>> erantzun dit batek (sartu gabe zergatik izan nahi eta ez dion polizia izaten uzten). Gainerakoek ez dute, gutxienez, gustuetan ere lehentasunik adierazi. <<Ez dakit>> izan da erantzun errepikatuena, baina hiru nesken aldetik, aho batez onartu dute lanik ez egitea gustatuko litzatekeela eta diru pila-pila bat izan nahiko luketela, nahiz eta bikote aberats bat aurkitu ezean, oso zaila ikusi.

Guk, sikira, futbolistak edo medikuak izan nahi genuen.

KALEZAR

AINARA URIBE

Auzoko frontoia

Zer moduz dijoa urtaro aldaketa? Udazkena garai polita da, ezta? Hego haizea, hostoak dantzan, perretxikuak... beno azken hau pil-pilean dagoela dirudi, aurtan sekula baino jende gehiagori entzun diot esaten han eta hemen ibili dela onddoak, gibel urdinak, esnegorriak, barren-gorriak, eta abar luze bat jasotzen. Hori ere moda kontua izango da ba. Urtero joaten diren horiei ez die batere grazirik egingo baina, tira, denentzako dagoela dirudi, denek otarra beteta ekartzen baitute.

Beno, udazkenari errepasoa eman eta gero kexatzeari ekingo diot aldizkari herrikoi honek ematen didan aukeraz aprobetxatuz. Dagokionari esan nahiko nioke, Kalezarko frontoia, Ugarteko aldapan aurkitzen dena, oso egoera tristean aurkitzen dela, ingurua belarrez josita dago, pintura apur bat ere eskertuko lukete pareta horiek, alegia aurpegi aldaketa baten premian dagoela, bi edo hiru gauzekin asko irabaziko luke



toki horrek, agian baten batek esango luke ez dela erabiltzen, baino horretarako lekua erakargarria izan dadin aldaketa-txoren bat egin behar da.



ATXEGALDE

M^oJESUS URBIETA

Zorionak aitonari!

Uztailen egon nintzen azkenekoz zuekin eta aitonaren urtebetetzea abuztuan izan zen. Abuztutik hona denbora pasa bada ere, ez dut aukerarik galdu nahi eta Gaztañagako Manueli zorionak nire txoko honetatik. 97 urte egin ditu eta horrela jarraitzeko esango diogu (bere seme-alabak, bilobak eta birbilobak Julen, Nerea, Koldo eta Maren) eta orain artean bezala aitona goxoa izaten jarraitzeko. Pilarika egunean bere ezkon-urtemuga ospatzen du eta egun hau ere berezia izaten da berarentzako.

Pasa den astebukaera zubi luze bat izan dugu eta eguraldi ederak aprobetxatu ditugu. Jende asko kanpora atera da lau egunak aprobetxatu nahian eta beste asko berriz hemen ibili gara udazkeneko lanak egiten. Urtaro hau izaten da sagar eta babarruna biltzeko, gaztainak eta urrak ere nonahi eta topatu ezker onddo batzuk ere saskian toki izaten dute. Gustura hartzen dira egun batzuk nor bere zereginetan murgiltzeko.

Mendi magaletara begiratzean ere, udazkeneko koloren ederrak ikus daitezke. Ehiztariak ere dagoeneko begiak zerutik kendu gabe dabilta pasako diren usoen ametsetan. Badago zer ikusirik urrutira joan gabe.

Gure auzoa dena den lasai egon da. Haurrak gustura izan dira eskolara joan beharrik gabe eta auzoan isiltasuna izaten da horrelakoetan eskolako sartu aterarik gabe.



SANTUENEA

ALEX TELLO

Erantzunikgabeko galderak



Egun dezente igaro dira Bros desagertu zenetik. Desagertu edo joan. Azkenekoz Santuenea inguruan ikusi nuen. Jatorra izanik, egun hartan ez zidan kasurik egin. Akaso, introspektion murgildurik zegoela, ez zuen beste inorekin egoteko gogorik izango. Dena dela, ez nuen berarengan ez ohiko ezer nabarmendu, nahiz, orduz geroztik haren desagertpena gertatu. Desagertpena edo joana.

Arrotzen artean aurpegiak azkar egiten dira ezagun. Bros Usurbila iaz etorri zen eta berehala ohitu ginen bere lekukotasunera. Ezaguna izateak ez du esan nahi 'nolakoa zen inork bazekienik'. Solasaldi aproposak izaten genituen arren, nik ez nuen Bros nahi bezala ezagutu.

Batzuetan arin eta besteetan sakon, zenbaitetan hitz egiten genuen, batzuetan labur eta besteetan luze, kalean topo egiten genuenean. Begikotasunez beti, Brosekin aurreiritzi guztiak lekuz kanpo gelditzen ziren.

Zubian egon ginen azken aldian, gauaz mintzo zitzaidan: "...iluntasunean zerua eta ibaia bat egiten dute. Espazio bitxi horretara jauzi eginez, itsaso zabalenean hegan nabigatu daiteke..."

Hurrengo batean Bros eta biok topo egiten badugu, noizbait berriz itzuliko den galdetuko diot. Erantzunik gabeko galdera izan daiteke.

URDAIAGA

NEREA AIZPURUA

San Esteban alde honetatik...



Agur bero bat guztioi San Esteban alde honetatik. Ez da erraza izaten alde honetako istorioak kontatzea, eta berri txarraz izatea baino hobe izanik berririk ez izatea, zaila izaten da pare bat astetik behin hemendik zerbait kontatzen jartzea.

Azken aldi honetan ugari dira tiro hotsak eta mendi aldeko joan etorriak, izan ere, ehiztari eta onddo biltzaile artean, antzeman dugu, bai, udazkenean sartuak garela.

Aurten gainera perretxiku urtea omen dugu, izan ere, jendea kiloak eta kiloak biltzeko aukera izan omen du.

Zuek ere, entzungo zenituzten, hainbat eta hainbat beren aurtengo perretxiku bilketei buruz hitz egiten, kiloak eta kiloak bildu dituztela esanez. Hori entzuten da behintzat, beste udazkenetan bakanka eta ezkutuan hazten zirenak, nonbait, aurten eskukadaka eta ageri xamarrean hazten ari omen dira.

Eta hau entzunda, tropelean igotzen zaizkigu azken asteetan, botak jantzirik, magalean gora, hainbeste itxarondako onddoen bila. Izan ere, jaki goxoa dugu eta norberak bildutakoa dastatzea aukera ezin hobea omen da; beraz, ahal duenak aprobeatza dezala!

AGINAGA

ANE MANZISIDOR

Haurrentzako filmak

Herriko jaiak igaro berriak ditugun honetan, berriro lanean hasteko garaia iritsi da. Udan, Aginagan haur txokoak antolatzeke deia luzatu banuen, orain ere, haurrei zuzendutako beste proposamen batekin nator.

Hurrengo larunbatean, urriaren 21an hasi eta oraingo, abendu bitartean, larunbatero ludoteka berrian, haurrentzako film batzuk eskainiko dira. Bi saiotan banatuko da sesioa, 10:00-10:30ak aldera txikientzako film bat eskeini-ko da eta ondoren film horren inguruan hainbat ekintza burutuko dituzte haurrek bi begirale lagunduta. Jarraian, 11:30-12:00ak aldera, beste film bat eskainiko da, hau gaztetxoagoei zuzendutakoa izango da.

Proposamen honetan, interesatuak dauden gurasoak bi bide har ditzakete, alde batetik, bi telefono zenbaki luzatuko zaizkie, (aurrez deitzea komeni da kopurua zehazteko) 680 347 768 (Leire) edo 686 820 329 (Ane). Bestela, egunean bertan 10:00etan ludotekara azaldu daitezke.

Amaitzeko aipatu behar, deialdia irekia dela eta edozein haur apuntatu daitekeela. Honez gain, kuota txiki bat ordaindu beharko da eta ez da nahitaezkoa izango larunbatero agertzea.

Honez gain, beste hainbat ikastaro antolatzeke asmoa ere bada. Ikastaro horietako batzuk euskal dantzak, informatika... izango dira. Informazio gehiago nahi izanez gero, Aginagako zahar egoitzako paneletan topatuko duzue.



ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Harmonia eta haustura

Udazkenak urtero dakarzkigu orbelezko alfobrak, perretxikoak eta gaztainak (eta zubietarrok, otarrak eta izozkailuak onddoz bete ondoren, hasi gara jada gaztainajatea antolatzen). Ikastola batzuk ere udazkenean jasotzen dute uzta eta hainbat zubietarrok Oiartzunen eta Beran egin dugu topo, pegatinak bularrean eta edaria eskuetan (eta euskara ahoan?). Negu epelerako bidean usoak udazkeneko hego haizea eta ehiztarien perdigoi hiltzaileak saihesten saiatzen dira (zubietarrok jada kendu dugu iratzargailu antipatikoa eta orain goizeko lehen tiro-hotsek jaikiarazten gaituzte salto batean).

Orbela, perretxiko eta gaztainak, Kilometroak eta Oinezek eta uso eta eskopetek nolabaiteko harmonia sortzen dute udazkenean eta harmonia hori hausten duten urteroko disgustuez gain (gure gatazka eta "prozesu" luzea, presoen egoera, erraustegia) azken bi asteetan izan dira herrian zalaparta berezia eragin dutenak. Batetik, herria erraustegiaren kontra egon eta han non bete zaigun kez bizpahiru egunez herriko kaskoa, inguruko larreetan egindako suek eraginda. Eta, bestetik, Udarregi ikastolako ikasle zubietarren gurasoak bere onetik aterata dituzten ostiral eguerditan euren seme-alabak jantoki eta autobus zerbitzurik gabe geratzeko aukerak. Ummm, harmonia, ummm.



Imanol Azpiroz, Zubietako alkatea

“Usurbilgo zaborra konpostatzeko nahikoa da 600 metro karratuko pabilioi bat”

Igaro den aste hasieran, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Saileko Ordezkarik Javier Madrazok Zubietan Gainan erraustegia eraikitzeak lurrak ez dituela salduko iragarri zuen. Aurkakoa egiteak Babes Ofizialeko 2.000 etxebizitza eraikitzea oztopatuko bailuke. Zubietako Herri Batzarreko alkate Imanol Azpirozek adierazi duenez, “ados egon ez arren, laguntza txiki bat eman digu”. Baina Madrazok bultzatu nahi duen proiektuarekiko aurkakotasuna argi utzi du. “Unea iristen denean, aurka azalduko gara, 2.000 etxebizitzak ez baititugu nahi”, zehaztu du Azpirozek.

Hauteskunde kanpainaren barruan kokatu du Madrazoren agerraldia. Benetako interesa beste bat dela dio Azpirozek. “Bere nahia etxe horiek Donostian egin eta hirian soberan dutena gurera bidaltzea da”, zehaztu du Zubietako alkateak.

Etxebizitzak ez, bai ordea, kartzela. Donostiako udaleko alkate Odon Elorzak erraustegia Zubietan Gainan eraikitzeak, kartzela eraikitzea blokeatuko luke. Bestelakoan, hala ere, kokalekua onartu beste aukerarik ez duela izan aipatu zuen. “Plan alternatiboak abian jartzeko behin ere ez du jarrera garbia erakutsi”, gogoratu du Zubietako alkateak. “Zaborrak kudeatzeko tratamendu erraldoia nahi du”, gehitu du Azpirozek.

Horrelakoen beharrik ez du ikusten Azpirozek. “Usurbilgo zaborra konpos-

tatzeko nahikoa da 600 metro karratuko pabilioi bat”, adierazi du. Horrekin batera, hondakin kopurua gutxitu asmoz, norbere etxeetan zaborra sailkatzeko konpromisoa hartzera dei egiten die herritarrei. Eta udalari konpromiso hori errespetatzera.

Hain zuzen, San Markoseko zaborte-giaren itxiera dela eta, herrian sortzen diren hondakinei berehalako irtenbidea eman beharraz mintzatu da Usurbilgo udaleko alkate Luismari Ormaetxea. Birziklapena bezalako metodoak aplikatu arren, hortik kanpo gelditzen den hondakin portzentajearekin erre edo pilatu beharra aipatu izan du. “Badakigu zaborte-giak beharko direla, baina baita erraustegia egiten bada ere” gogoratu du Azpirozek. Bere ustez, Ormaetxearen jarrera aldatetako aurrerapausoa suposatuko luke. “Alderdiko aginduen zain egon ordez, jarrera aldatu eta jakin nahi gehiago izango balu, gaian aurreratu genuke” adierazi du Azpirozek.

Villasana de Mar herriko adibidea gogora ekarri du. 20.000 biztanleko herrian bi labeko erraustegia zuten. Baina erretzen zuten zaborra baino %40 gehiago sortzen zutela jabetu ziren. Erraustegiak biztanleen odoleko dioxina tasan zer nolako eragina izan zuen ikusteko azterketa egin ondoren, gaikako bilketari ekitea erabaki zuten. Azpirozek gogoratzen duenez, “bertako alkatea zaborren kamioiaren atzetik ibili zen”. Hiru hilabetetan, egoera erabat aldatu zen.



ERRAUSTE PLANTEN AURKAKO PLATAFORMAKO KIDE ERE BADA IMANOL AZPIROZ.

Lokal berriaren inaugurazioa

Larunbat honetan, urriak 21, arratsaldeko 17:00etan lokal berria inauguratuko dute frontoi atzean. Erraustegiaren aurkako plataformako kideen bilgunea izango da. Bertan erraustegiaren gaiaren inguruko azken orduaren berri emango da. Erraustegiaren proiektuak aurrera jarraitzen badu, zubietarren inplikazio handiagoa beharko dela azpimarratu du Azpirozek. “Lokala dinamizatzeko jendea beharko da” aipatu du.

ARITZ GORRITI

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Zendoia

Kale Nagusia 35 ☎ 943 37 40 71

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

Billetek gora, sortutako hondakinek behera

Hiri-hondakinen 2005eko balantzea aurkeztu berri du San Markosek

San Markoseko zabortegia datorren otsailera arte zabalik izango da. Hala eman dute jakitera, Donostia, Olereta, Hernani, Lasarte-Oria, Pasaia, Oiartzun, Lezo, Urnieta, Usurbil eta Astigarraga herriak biltzen dituen San Markos Mankomunitateko ordezkariak. Zabortegian bertan hondakinak gordetzeko transferentzia estazio bat eraikiko dute. Dagoeneko hondakinak Gipuzkoako beste zabortegi batzuetara eramateko negozioazio lanetan dabilta.

Mankomunitateak 2005eko memoria liburuan biltzen duenez, urtebeteren buruan 97.009 tona hondakin garraiatu ziren San Markoseko zabortegira. Hala, eguneko biztanle bakoitzak 1,28 kg hondakin sortu zituen. Baina balantze horretan badira datu baikorrak ere. Iaz, 2004ko datuekin alderatuta, lehen aldiz jaitsi egin zen hiri-hondakinen kopurua; %3,41. Aldiz, gaikako bilketak gehitu egin ziren; %2,87.

Datu orokor horietan sakonduta, usurbildarrei dagokienez, hamabi hilabete horietan 2.587,4 tona hondakin sortu ziren. Zabortegira garraiatutako tona kopuruaren %2 Usurbildik eraman zituzten. Zehaztasun handiagoz, herrian egiten diren gai ezberdinen bilketari buruz, honako datuak kaleratu dituzte:

Bildutako gaia	San Markosen batz bestekoa (biztanleko)	Usurbilen batz bestekoa (biztanleko)
Papera, kartoia	33,80 kg	31,18 kg
Beira	24,57 kg	38,30 kg
Ontziak	12,58 kg	15,79 kg
Pilak	0,15 kg	0,14 kg
Ehuna	2,28 kg	5,31 kg

Gairik gai taulan ikus daitezke Usurbilen jarrita dauden eduki ontzietatik biztanle bakoitzak zenbat hondakin birziklatu dituen. Zenbaki



2005EAN 97.009 TONA HONDAKIN GARRAIATU ZIREN ZABORTEGIRA.

horiek, ordea, San Markosen biltzen den batz besteko datuekin alderatzen badira, badute beste irakurketarik.

Usurbilen bildu zen ehun eta ontzi gehien

Egun, herriko 24 guneean bildutako hondakin kopurua Mankomunitate osoaren batz bestekoaren gainetik dago. Gai batean baino gehiagotan. Mankomunitate mailan, iaz eta biztanle bakoitzeko, hemen bildu zen ehun eta ontzi gehien.

Paper eta kartoi birziklapenean, batz bestekoaren azpitik dago herria. Baita pilen bilketari dagokionean, nahiz eta oro har, datu horien arabera, pila bilketa handirik ez den egiten. Oso nabaria da, hamabi hilabeteetan biztanleko kilo laurden baino gutxiago pila bildu izana.

Kontrolak gabeko lau isurketa gune

Datu sorta horri landare-olio erabiltaren datuak erantsi behar zaizkio.

Ostalaritza guneean, 35.633 litro bildu ziren; 2.306 litro etxeetan. Baina datu kezagarri bat ere aipatzen da memoria lan horretan. Herrian kontrolak gabeko lau isurketa gune ditugu.

Merka2, urriaren 29an

Berrerabilpena bultzatu asmoz, San Markos Mankomunitate osoan "Merka2 San Markos" izeneko bigarren eskuko merkatuak antolatzen dira eremuko herri guztietan. Merkatuan erabilgarriak izan daitezkeen material eta objektuak berreskuratze lanetan elkarre, erakunde eta merkatariek parte hartzen dute. Arropa, liburuak, apaingarriak edota altzariak aurtan ere ikusgai eta salgai izango dira Usurbilen. Iaz, 10.000 lagun baino gehiago igaro ziren. Egunero sortzen dugun zaborra murriztera jotzeko sentsibilizazio kanpainaren barneko ekitaldia dugu. Datorren urriaren 29an, igandea, Dena plazan eta pilotalekuan postu dezente jarriko dituzte.

Lourdes Jauregiberri, EAJ-PNV

“EArekin elkarlanean aritzea, hori izan da beti gure helburua”

Legealdia amaitzeko sei hilabete falta direnean, herriko ordezkari politikoen adierazpenak biltzen ari gara azken asteotan. UHL eta EA alderdiei hitza eman eta gero, honakoan Lourdes Jauregiberri EAJ-PNVko kidea da gure solaskidea. Legealdia oposizioan hasi bazuen ere, orain EAJ-PNV agintean ari da parte hartzen EA alderdiarekin batera.

NOAUA! Legealdi hasieran, gutxiengoan agintzen zuen EA alderdiak. Azken hilabeteotan, EAJ-PNVk ere udal gobernuan hartzen du parte. Bi alderdien artean egiten ari zareten lanarekin pozik al zaudete?

Lourdes Jauregiberri. Bai, pozik gaude. Hau izan da gure apustua, EArekin elkarlanean aritzea, oposizioan egon garenean ere hori izan da beti gure helburua. Jakin dakigulako hori herriaren mesederako izango dela eta gure hautesleagoa EAJ-PNV eta EAkoak gu elkartzearen zalea delako. Ahalegin horretan ari gara.

LOURDES JAUREGIBERRI

“Mila etxebizitza horietatik %60 baino gehiago etxebizitza babestuak izango dira”

N. Hiru urte eta erdiko epe honetan, zertan asmatu du udal gobernuak eta zertan ez?

L. J. Azken batean herritarrak baloratu beharko du udala egiten ari den lana, gu ez ginateke momentu honetan hori baloratzeko egokienak.



GIPUZKO BURU BATZARREKO KIDE ERE BADA LOURDES JAUREGIBERRI.

N. Etxebizitza arloa legealdi honetako apustu handiena dirudi. Zuen ustez, hain beharrezkoak al dira aurreikusi diren 1.000 etxebizitza horiek?

L. J. Gogoratu behar da udal gobernu hau aurreko gobernuak, ezker abertzaleak, onartutako arau subsidarioekin, gehien batean, ari dela lanean.

Mila etxebizitza hauetatik %60 baino gehiago etxebizitza babestuak dira. Beharrezkoak al dira? Galdetu besterik ez dago usurbildar guztiei.

Datu interesgarri bat dago eta gogoeta bat egiteko balio duena, aurreko legealdian ezker abertzaleak ez zituen arautu etxebizitza babestuak udal lurretan. Zergatik ezker abertzaleak udal lurretan etxebizitza libreak baka-

rrik arautu zituen?

N. Oposizioan egon diren alderdien jarrera nolakoa izan da zure ustez?

L. J. Zinegotzi guztien lana baloratu beharrekoa da. Denak herri honen ordezkariak dira eta bere programen arabera lan egiten saiatzen dira. Noski gai politikoetan desberdintasun handiak ditugula, baina herriko gaietan pentsatu nahi nuke; denok herriaren mesedea nahi dugula, nahiz eta batzuetan PSE-EEk egin izan duena ulertezina izan guretzat. Tramite hutsean oinarrituta “Pol. 13”ko urbanizazioko obrak geldiarazten saiatu zen. Jarrera hauek onartezinak dira.

“Ilegalizazioari buruz izan dugun jarrera beti kontrakoa izan da”

NOAUA! Alderdien Legeak udale-txetik kanpo utzi zuen UHL. Gauza bera errepikatuko dela uste al duzu?

Lourdes Jauregiberri. Nire ustez hurrengo hauteskundeetan alderdi guztiek izango dute partehartzeko aukera. Usteaz gain, gure nahia da hori. Ilegalizazioari buruz izan dugun jarrera beti kontrakoa izan da. Ekimen hori PSOEk eta PPK jarri zuten abian, interes politiko jakin batzuen baitan, eta “ezker abertzalea” deritzanak ez zuen jakin edo ez zion horri aurre egin nahi izan. Guretzat erabat funtsezkoa da herri honetako espresio politiko guztiek euren ordezkaritza eduki ahal izatea, eta espero dugu horrela izatea.



OLARRONDO-UGARTONDO ETA GAINONTZEKO ETXEBIZITZA PROMOZIDEN %60 BAINO GEHIAGO ETXEBIZITZA BABESTUAK IZANGO DIRELA DIO EAJ-PNVK.

Koalizioaren aldekoa

N. EAKo zuzendaritzak hala erabakita, udal hauteskundeetan ez da EA eta EAJ-PNV alderdien arteko koalizioa errepikatuko. Usurbilgo EAJ-PNVko kideek nola hartu dute erabaki hori? Zure ustez egokia al da EAK hartu duen bidea?

L. J. EAK datorren hauteskundeetan gurekin ez joateko hartu duen erabakia tristuraz jaso dugu. Gure ustez, EAJ-PNV / EA koalizioa apustu estrategikoa da, baita Usurbilen ere. Nahiz eta gure ezberdintasunak izan, udaletxe mailan esfortzua egin dugu horrela izan dadin. Hala ere EAren erabakia erabat errespetatzen dugu, eta ez dut uste guri dagokigunik balorazioetan sartzea. Edozein kasutan, EAJ-PNVren apustua, Usurbilen ere, koalizioaren aldekoa da.

N. Bake eta normalizazio prozesua *impasse* egoeran dela dirudi. Zure ustez, zeintzuk dira prozesua bideratzeko eman behar diren pausoak?

L. J. Nire ustez, bakerako mahaia

eta normalizazio politikorako mahaia abian jarri behar dira, eta horretarako ausardiaz jokatu behar da. Ezker abertzaleak bide politikoen aldeko apustu garbia egin behar du, beste jokabide batzuk baztertuz, eta Zapaterok konpromisoak hartu behar ditu. Badakigu prozesua luzea izango dela, baina erabakiak hartu behar dira, ordua iritsi da.

LOURDES JAUREGIBERRI

“Herri bat gara eta hala garenez guk erabakitzeo eskubidea izan behar dugu”

Herri bat gara eta hala garenez guk erabakitzeo eskubidea izan behar dugu. Beste elkarrizketa batean nion: gure Lehendakariak Juan Jose Ibarretxek dioen bezala, kontsulta baten bidez erabakiko dugu gure etorkizuna.

“Hiri hondakinen gaia gehiegi luzatu da”

NOAUA! Errauste planta ezartzeko, Zubieta gaina izeneko kokagunearen alde azaldu dira mankomunitateak, Odon Elorza eta Foru Aldundia. Erabaki hau nola hartu du zure alderdiak?

Lourdes Jauregiberri. Guretzat gai hau gehiegi luzatu da. Donostiako alkateak izan duen jokabidea erabat arduragabea izan da, eta zaborrak gainezka egin diotenean hasi da mugitzen. Inork ez du horrelako azpiegitura bat bere inguruan nahi, ezta zabortegirik ere, baina orduan zein da konponbidea? Eskatzen duguna da eraikitzen den azpiegitura azken teknologiak erabiliz eraiki dadila, berme guztietan.

Giro ederra Irrati tabernaren 10. urtemugan



Irrati tabernak hamar urte bete ditu. Ederki ospatu ere. Igandean, EPOK, Susmo eta Despervicio herriko taldeek frontoi

atzean kontzertua eskaini zuten. Bazkari ederra dastatu ondoren izan zen. Eguraldiak lagunduta, herritar ugari hurbildu zen ospakizunetara.

Harro ibili da haizea egunotan



Lehenengo astelehenean, urriaren 16an, San Esteban kalean ateratako argazkia duzue haxe. Haizea harro-harro ibili zen egun osoan eta baita biharamunean ere. Irudian agertzen den zuhaitza arratsaldeko lehen orduan bota zuen haize bolada

batek. Ez zuen inongo kalterik eragin. Oinezkoak pasatzeko arazorik ez zuten baina autoei traba egiten zien eroritako zuhaitzak. Argazkia ateratzen ari ginela udal langileak azaldu ziren eta berehala zabalik geratu zen bidea.

Odol emaileak omenduko dituzte igande honetan

Urteetako borondate eta konstantzia eskertu asmoz, herriko hainbat odol-emailek ikur eta diploma bana jasoko dute datorren urriaren 22an. Zubietan biltzekoak dira Oria beheko bailarako kideak.

Usurbildar hauek omenduko dituzte; iaz, 25 aldiz odola emateagatik, Jone Agirrezabala, Isidro Arruti, Milagros Iribar eta Vicente Palacios. 40 aldiz odola eman duen emakume bat ere omenduko dute; Soledad Navarro.

Hain zuzen, odol emaileek 25 aldiz edota emakumeek 40 aldiz eta gizonezkoek 50 aldiz odola ematen dutenean omentzen dira. Emakumeek hiru aldiz eman dezakete odola urtean; gizonezkoek, lau aldiz.

Odol emaileen elkarteak jakinarazi duenez, omenduak izango direnak eta oro har, odol-emaile diren guztiak eskertu nahi dituzte. Bestalde, jarrera hori herritar gehiagorengana zabaltzea espero dute.

KzGunea, azaroan arratsalde

Urrian goizez irekita jarraituko du KzGuneak baina azaroan arratsalde zabalduko ditu ateak, arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara.

“Internet KzGunea”, 20 orduko oinarrizko Internet ikastaroa azaroaren 6an hasiko da. IT txartela eskuratzeko aukera ugari izango da. Hori gutxi balitz, zortzi mintegi antolatuko ditu KzGuneak; batzuk euskaraz eta besteak gazteleraz.

Azaroaren 5ean, Erle Eguna

Pirritx eta Porrotx pailazoez yogurra eztiarekin banatuko dute

Iaz, azaroaren amaieran ospatu zen baina aurten azaroko lehen igande-ean egingo da Erle Eguna. Ezti eta gozogintza lehiaketak, erakusketa, enkantea... Egitarauak goiz atsegin bat pasatzeko nahikoa ekitaldi jaso ditu.

Goizean goiz hasiko da ezti festa. 9:00etatik aurrera, ezti eta gozogintza lehiaketak jarriko dira martxan. Lehen orduan bilduko dira lehiaketara aurkeztu diren ezti poteak.

Eguerdiko 11:00etan hasiko da erakusketa baina ezti eta gozogintza sarien banaketa, ordea, eguerdiko 13:30ean egingo da. Erle Egunari amaiera emateko bazkaria egingo da Aginaga sagardotegian (txartelak egunean bertan jarriko dira salgai).

Aurten, nobedade bezala, yogurra eztiarekin dastatzeko aukera izango da. Pirritx eta Porrotx pailazoez hur-bilduko dira yogurra eztiarekin banatzen diren ezti poteak.

Lehiaketak, erakusketa, enkantea...

9:00-10:00. Ezti zein gozogintza lehiaketako produktuen bilketa.

11:00-14:00. Erakusketa: erleak, argizaria, informazio-panelak, postuetako salmenta, musika, bertsolariak...

13:30. Ezti eta gozogintza sarien banaketa eta ezti sarituen enkantea.

Argazki lehiaketaren sari banaketa.

14:00. Egunari amaiera emateko,

bazkaria Aginaga sagardotegian (txartelak egunean bertan jarriko dira salgai).

Antolatzailea: Erle Eguna taldea.

Babesleak: Usurbilgo udala, Gipuzkoako Erlezain Elkarteak, Foru Aldundia, Euskadiko Kutxa, Kutxa, Eroski, Neiker, Kaiku.



LEHIAKETARAKO EZTI POTEAK EGUNEAN BERTAN BILDUKO DIRA.

Kerobiak disko berriena aurkeztuko du Sutegin

Iruñeko taldea da Kerobia. 2001 Iurteko azken hilabeteetan sortu zuten Xabi, German eta Mikelek. 2003ko urtarilean, hirukotea laukote bihurtu zen. Duela egun gutxi, "Rose Escargot" diskoa aurkeztu du pop-rock talde honek. Datorren astean, urriak 27 ostirala, Sutegin arituko dira zuzenean. Sarrerak jada salgai dira.

Disko berrian, "Rose Escargot" izena duen pertsonaje baten gogoe-tak bildu dituzte, lehen, bigarren eta hirugarren pertsonen kontatutako istorioak.

Kontzertua urriaren 27an gaueko 22:30ean hasiko da. Aldez aurretik kiroldegian aurkituko dituzue sarre-rak, 8 eurotan. Egunean bertan, Sutegiko takillan, 10 eurotan.



KEROBIA, ESTUDIOKO IRUDI BATEAN.

txirriStra
KONTSEJU ZAHARRA 13
943 300 400

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

ANTXETA
taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak

EGUZKITZA, 4 USURBIL - 943 370 344

Hitz geqidunak !!

	* IZENA	▼	Egiteko moduak	▼	Arotzaren lanabesak	▼	Musika nota	▼	Egunkariak erosteko tegi
	Senda-gileak		Lerdetsu		Iparre-tarrak		Bizkaiko herria		
	►		▼		▼		▼		▼
	Idiaren haragia	►						1	►
	Zutarri							50	
Espartinak	▼	Zaren horrek	► ▼			Potasioa	►	Lotan	► ▼
Nafarroako herria		* DEITURA				Haur hizk., musu		Auzategiak	
►		▼				▼		▼	Sufrea
									Arabako harana
Ardi, hitz elkarketan	►			Hitzar-menak	►				▼
Bizkaiko eskualdea				Arto iri-nezko opil					
►			▼				Ekintza gaitzesgarri	►	
						Edo			
Amerikako estatua	►			Giltza	►	▼			
Txalupa				Interjek-zioa					Iridioa
►				▼		Kontso-nantea	►	Jardun	►
						Nitrogenoa		Kontso-nantea	▼
Modu atzizkia	►		Oinaztarri	►		▼		▼	

* Usurbilgo pilotari profesionala.

Soluzioa, 17. orrialdean.

ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaia.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Fototeka, Plis, Plas, Txalo ta Jolas, "Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak"... Gure bazkideak harro egoteko moduan dira. Baina gehiago eta hobeto lan egin daiteke.

Orain, bazkide egiten bazara, Usurbilgo baserrien liburua jasoko duzu opari gisa.

Bazkide egin zaitez!

Noaia !!

36 euro urte osorako

Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Telefonoa: _____
 E-posta: _____
 Kontu korrontea:

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Endika Abril errebote txapelketako finala ez da Zubietako plazan jokatu

Endika Abril errebote txapelketa amaitzera doa. Abuztuaren amaieran hasi zen 43. edizioaren finala jokatu da igande honetan eta hasiera batean Zubietako errebote plazan jokatzea bazen ere, Zubietako Pilota Elkartek azken partida hau antolatzeari uko egin dio. Errebote plazaren egungo egoera kaxkarra ikusita lotsagarria iruditu zaie finala bertan izatea eta azkenean Villabonan jokatu da Kapito Harri eta Luzeaz Gain taldeen arteko norgehiagoka.

Endika Abril errebote txapelketako finala txandakatuz jokatu izan da urteetan zehar Zubietako eta Villabonako plazetan. Txapelketa honetako lehen edizioaren finala Donezteben izan bazen ere, ondorengo urteetan Gipuzkoan pilota-joko hau bizirik mantendu duten herrietan jokatu izan da finala.

Iaz Villabonako Behar Zana elkarteak antolatu behar zuen azken partida hau, baina Oiartzunen errebote plaza berriaren inaugurazio ekitaldiarekin bat eginenez, bertan antolatzea erabaki zuten. Aurten, aldiz, Zubietan jokatu behar zen finala, baina errebote plaza behar bezala ez dagoenez Villabonako plazara eramatea erabaki dute.


Zubietako Pilota Elkarteko kideei lotsagarria iruditu zaie horrelako final bat beraien plazan antolatzea. "Endika Abrilek 50 urte beteko ditu laster. Gipuzkoa mailan tradizio handiko txapelketa da eta finala toki txukun batean, duintasun minimo batekin jokatzea merezi du". Une honetan errebote plazaren egoera ez omen da onena eta elkarteko pilotari batzuk zenbait konponketa ere egin zituzten Endika Abril txapelketa hasi aurretik.

Pilota elkartekoen arabera, Zubietako Herri Batzarrak aspaldi proposatu zien Usurbil eta Donostiako udalerriei plaza eta bere inguruaren eraberritze beharra, baita proiektu bat aurkeztu ere, baina oraingoz ez dute erantzun positiborik

jaso. "Egunero ikusten dira komunikabideetan Zubietan dauden proiektuak (errauste planta, espetxea eta abar) baina zubietarren benetako beharrei erantzuteko oso prest ez dirudite. Erreboteko plaza ere behar bat da, oso gutxi baitira Gipuzkoan, eta merezi du ohorez mantentzea, gure kultura eta historiaren ondare garrantzitsu modura. Ez dezagun ahaztu errebote plaza kirol gune bat dela eta horrela izanik, gutxieneko mantenu bat behar du, beste instalazioek bezala".

Hau guztia ikusita finala Zubietako errebote plazan ez jokatzeak erabakia hartu du Zubietako Pilota Elkartek, eta Villabonan izango da azken neurketa hori datorren igandean. Eguraldiak laguntzen badu norgehiagoka bikaina ikusteko aukera izango da bertan. Uztaritzeko Kapito Harri eta Donibane Lohitzuneko Luzeaz Gazte taldeak izango dira aurrez aurre, Endika Abril txapelketako azken bi edizioetan garaile izan diren taldeak hain zuzen ere.

Pasa den igandean jokatu ziren finalerdia, eta Oiartzungo erreboteko plaza librean behintzat partida ikusgarria jokatu zuten Kapito Harri eta Hazparrengo Noizbait taldeko pilotariek. Indarrak pare-parean izan ziren eta azken jokora



UNE HONETAN, ERREBOTE PLAZAREN EGOERA EZ DA BERTAN JOKATZEKO EGOKIENA.

arte ezin izan zen jakin finalean izango zen taldearen izena. "12 joko berdina izan ziren, baina azkenean Uztaritzekoek 13-12 irabazi zuten. Beste finalerdian, berriz, ez zen kolorerik izan. Villabonako Behar Zana taldeko pilotariek etxean jokatu zuten, baina pasa den urteko edizioa garaile eta egungo Frantziako txapeldun den Donibane Lohitzuneko Luzeaz Gazte taldearen aurka hiru joko besterik ez zituzten egin.

JOSU ARANBERRI

Nesken eskubaloia partida Oiardon

Usurbil Kirol Elkarteko kadete Nesken eskubaloia taldeak neurketa garrantzitsua jokatu du larunbatean Oiardo kiroldegian. Jokatuak hiru partidak irabazi dituen Andoaingo Leizaran taldea izango dute aurrez aurre. Usurbildarrek, berriz, lehenengo norgehiagoka galdu zuten Zarautzko Aiala A taldearen aurka, baina ondorengo hiru neurketetan garaipena lortu dute. Larunbatean hirugarren postutik bigarrenera pasa daiteke Nerea Agudok eta Patxi Bengoetxeak zuzendutako taldea.

Usurbil FT - Segura Zubietako zelaian

Usurbil Futbol Taldeko 1. Errejon mailako taldeak ez du ondo hasi 2006-2007 denboraldia. Bost partidatatik bakarra irabazi dute eta beste guztietan ez dute punturik eskuratu. Pasa den asteburuan 1-0 galdu zuten Elgoibarren aurka eta honenbestez, sailkapeneko azken postuetan kokatuta daude liga hasiera honetan. Larunbatean, bigarren garaipena eskuratzeko aukera izango dute. Oraindik punturik lortu ez duen Seguraren aurka jokatu dute Zubietako belar artifizialeko zelaian.

Gripearen kontrako txertoa jartzeko kanpaina

Azaroaren 30ean amaituko da kanpaina. Bien bitartean, 65 urtetik gorako pertsonen, gaixotasun kronikoa dutenen eta ospitaleetako langileei gripearen aurkako txertoa jarriko zaie.

Ohi baino hilabete beranduago hasi da gripearen kontrako txertoa jartzeko kanpaina EAEn, eta azaroaren 30ean amaituko da. Orotara, 450.000 txerto jartzea aurreikusi du Osakidetza, eta horretan 1,8 milioi euro xahutuko ditu, iaz baino %54 gehiago.

Gripeaz kutsatzeko arrisku gehien dutenei jarriko zaie txertoa: 65 urtetik gorakoei eta gaixotasun kronikoa dutenei. Halaber, erietxeetan lan egiten dutenei eta gripez kutsatzeko arriskua duten pertsonekin harreman zuzena dutenei ere jarriko zaie.

Osakidetza aurreratu duenez, umeei ez zaie txertoa jarriko, baldin eta gaixotasun kronikoren bat ez badute. Haren hitzetan, herrialde garatuetan umeei ez dute zertan gripearri aurre egiteko neurririk hartu behar.



65 URTETIK GORAKOAK ETA
GAIXOTASUN KRONIKOA DUTENAK
TXERTOAK HARTU BEHAR DUTE.

Aholkua !!

Digestioa eragiteko infusioak

Kamamila da egun ere digestioa laguntzeko hartzen diren landareetan erregina, multzo horretan beste hamaika espezie ere bilatzen ditugun arren: anisa, menda-belar piperita, txortaloa, mihilua, kuminoa, kanela, berbena limoi-usaina, garraiska, erregaliza, eta abar. Kontuan izatekoa da hainbat landare elkarren artean konbinatzeak horien efektuak biderkatzen dituela. Apetitua iratzartzen edo digestio mantsoa azkartzen dutenak mahaira eseri baino ordu erdi

lehenago hartzea aholkatzen da.

Anisa, kamamila, mihilua, menda eta antzeko infusioak bero hartu behar dira, horien propietateetako batzuk beraien olio esentzialek dituztelako; olio horiek, infusioa hoztean, lurrundu egiten dira. Erregaliza ultzerak sendatzen dituela frogatua dago; landare mikatzek (boldoa, orburua etab.) gibel eta behazuneko sekrezioa areagotzen dutenez, gantzak digeritzen eta organismoa garbitzen laguntzen dute. Janari oparoen ondoren



hartuz gero, emaitzak aiseago nabaritutuko dira.

Eguneko goardiako farmaziazak

Urriak 19, osteguna
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Urriak 20, ostirala
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Urriak 21, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Urriak 22, igandea
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Urriak 23, astelehena
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Urriak 24, asteartea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Urriak 25, asteazkena
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Urriak 26, osteguna
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Urriak 27, ostirala
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Urriak 28, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Urriak 29, igandea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11,
Hernani. 943 336 077 (Urte osoan).

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55* / 9:30(T) / 13:15(T) /
14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
7:15* / 9:00 / 12:45(T) /
13:45* / 18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45 /
15:15(T) / 21:35(T)

(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T) / 13:30(T) / 15:30(T) /
21:35 (T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T) / 13:00(T) / 15:00(T) /
21:00 (T)

* Eskola egunetan.

T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Agenda !!

Urriak 20, ostirala

- Saharar Errepublikaren ondare kulturalari buruzko DVD emanaldia. 19:00etan Sutegin.

Urriak 22, igandea

- 1955eko kintoen bilkura Errastin. Izena emateko: 943 365 318 (Angel)/ 943 366 879 (Jose Miguel).

Urriak 27, ostirala

- Kerobia "Rose Escargot" diskoa-ren aurkezpena. Sutegin, 22:30ean.

Urriak 29, igandea

- Merka2 bigarren eskuko produktuen merkatua. Dema Plazan, 10:00etan.

Azaroak 5, igandea

- Erle Eguna 2006. Lehiaketak, erakusketa, enkantea, bazkaria...

Musikaren txokoa !!



"Lurra eta maitasuna", Pantxoa eta Peioren berriena

Lurra, maitasuna, askatasuna eta bakea dira Pantxoa eta Peioren disko berriko lau zutabeak. Lau gai horiek jorratu dituzte kantari lapurtarrek, Elkarrekin atera duten "Lurra eta maitasuna" izeneko lanean. Duela 40 urte hasi ziren kantatuan. Elkarrekin egin zuten beren lehen diskoa. Eta Elkarrekin atera zuten, hots, Elkar disketxearekin. Peio Ospital eta Pantxoa Carrere jarri zioten izena. Beren izen-abizenak eman zizkieten Elkarrek argitaratu zuen lehen diskoari. «Kantarien historiarekin batera hasi zen disketxearen historia», Anjel Valdes editoreak esan duenez.



Haren hitzetan, «euskal kantarien disko berriak antzinako abestiak berreskuratzen ditu, memoria historikoa lantzen du, baina etorkizunari keinu egiten dio, etorkizuneko tradizioa eraikitzen du». Euskal Herriko lirika tradizionalaren osagaiak biltzen ditu, baina baditu, halaber, Pantxoa eta Peioren ibilbidean berriak diren kostaldeko giro zeltiarrak.

Diskoan, badira, halaber, amodiozko kantu zaharrak. Besteren artean, "Lehen, orai, bethi", 1941ean Aita Donostiak Ainhoan (Lapurdi) aurkitutakoa, eta "Nere maitia, jeiki eta jeiki", Oiartzungo kantu zaharra. Kattalin Indaburuk abestu du kantu hori, Pantxoa eta Peiorekin batera.

Soluzioa !!



★	A	★	E	★	A	★	L	★
O	S	A	G	I	L	E	A	K
★	I	D	I	K	I	A	★	I
★	A	★	Z	E	U	K	★	L
A	B	A	U	R	R	E	P	E
★	A	R	T	★	T	R	A	T
A	R	R	A	T	I	A	★	A
★	K	U	B	A	★	K	A	K
B	A	T	E	L	A	★	L	★
★	K	I	★	O	I	N	A	Z

Soluzioa: Asier Arruti.

Saharar Errepublikaren ondare kulturala ikusgai Sutegin

Mendebaldeko Saharako lurraldearen bi herenak Marokok ilegalki okupatuak ditu. Bada, ordea, liberatua den lur zati bat.

DVD emanaldi eta hitzaldi batek liberatua dagoen gune horretara gerturatuko gaitu. Ikus-entzunezko proiektzioak euskal-saharar talde bat kultura babesteko egiten ari

den lanaren emaitzak erakutsiko ditu.

Emanaldia biribiltzeko, ikerketa taldeko Xabier Errastik kultur ekimen horri buruz jardungo du.

Ekitaldia SEAD Lagunen Elkarrekin antolatu du. Hitzordua: urriaren 20an, ostirala, arratsaldeko 19:00etatik aurrera Sutegin. Sarrera doan.

ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

ETXEBIZITZA

- Usurbilen logela bat alokatzen da. 679185102.
- Usurbilen hiru logelako etxe bat alokatutzen da. Abala eskatuko da. 649261704.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tf: 630 032 779.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxita salgai, 18 m2. Merkea. Puntapax bidean. 610 29 18 64 (Carlos).
- 49 zm-tako Honada moto bat daukat salgai. Kondizio onetan eta modu onean. Interesatuak deitu 943364554 telefonora
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Bi emakume eskaintzen dira goizez bi orduz lan egiteko. Deitu 659879040 / 943 365 737 telefonora.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da, orduka zein egun osoz. 610 669 335.
- Asteburuan lan egiteko prest nago. Larunbat arratsaldeetan, igandeetan eta astelehen goizetan. 686 120 402.
- Esperientzia duen neska umeak zaintzeko prest. Edozein ordutan lan egiteko. 660 041 361.
- Udan umeak zaintzeko prest nago. 687 651 605.
- 17 urteko mutil bat naiz eta ekainetik iraile-ra bitartean Usurbil eta inguruetan gustora lan egingo nuke. Eskaintzen bat baduzu deitu 650491552.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.
- Bi neska lizentziatu eta esperientziadunak LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularrak ematen ditugu euskaraz zein gazteleharaz. 653711574.
- Emakume bat eskeintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Portalak eta eskaierak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein mota-tako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. Telefono zenbakia: 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- Esperientzia duen emakume bat behar dugu umeak zaintzeko. 616492144
- Olarrondo jatetxean astebukaeratan barran eta komedorean lan egiteko pertsona bat behar da. 943360376.
- Pertsona bat behar dugu etxeko lanak egin eta haur bat zaintzeko. Lau orduz, goizeko 7:30etik 11:30era. Telefono zenbakia: 943 37 06 91 (ilunabarrean).
- Jatetxe batean garbitasun lanak egiteko emakume bat behar dugu. Interesatuak deitu 943 36 27 13.
- Arratsaldean etxeko lanak egiteko emakume baten bila gabiltza 645403905.
- Zarautzko malekoian udan lan egiteko zerbitzariak behar dira. 661972670.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Bertako babarrun beltza eta baserriko oilaskoak saltzen ditut modu onean. Interesatuak deitu 664774024 telefono zenbakira.
- Hiru hilabeteko hiru zakurkume dauzkagu oparitzeko. 943 36 33 06.
- Benta tabernan lan egin nahi baduzu deitu: 685757962.
- Citroen Berlingo bat, kamara isotermikoduna kondizio honetan daukagu salgai. 676453176.
- Patri jatetxe inguruan urrezko (urre koloreko) pultsera bat aurkitu da. Galdu duenak udaltzainetan galde.
- Tren geltoki inguruan Nokia telefono mugikor beltz bat aurkitu da. Galdu duenak udaltzainetan galde dezala.
- Snow egiteko tabla bat fizioekin salgai. 679185102
- Terrenoa landatzeko erosi nahi dut, edifikatzeko ez. Tf: 943 36 11 09.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. E-maila profesionala, modu onean. 617242660 / apore@euskalnet.net
- Gazteentzat lokal bat alokairuan hartuko genuke. 667 694 049.
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa, prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila erosiko nuke. 605 72 48 24

Txerrimunik ordainetan!

Zorionak Amona!

Hilaren 17an 77 urte eder beteko dituzulako, eta beste asko bete dituzulako. Ea elkarrekin ospatzen dugun eta muxu handi bat etxeko guztien partez!



JAIOTAKOAK

Jon Muñoz Lasa

Urriaren 7an.

Oharrak,
Txerrimunik ordainetan
doaneko atalak dira

Datorren alea: urriak 27.

Zorion-agurrak urriaren 23a baino lehen ekarri edo bidali.
erredakzioa@noaua.com

NOAUA! Kultur Elkarte
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20170 Usurbil

Telefono interesgarriak!

- Udala.....943 37 19 51
- Udaltzaingoa.....943 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak943 37 01 48
- Eusko Tren.....943 47 09 76
- Anbulategia..... 943 36 20 13
- Udarregi Ikastola..... 943 36 12 16
- Udarregi (Agerialde).....943 36 38 95
- Haur Eskola (Kalezar).....943 37 40 61
- Oiarde kiroldegia.....943 37 24 98
- Zumarte943 37 15 94
- Etumeta euskaltegia943 37 20 01
- Taxi geltokia.....943 36 21 78
- D.Y.A.943 46 46 22
- Gure Pakea.....943 37 32 28
- Gure Elkarte.....943 37 17 51
- Arrate Egoitza.....943 36 63 40
- Bake epaitegia.....943 37 23 36
- Oa farmazia.....943 37 60 76
- Iturralde farmazia.....943 36 33 95
- Zubietako Batzarra.....943 37 20 77
- Argindarra (Iberduero).....943 47 09 76
- NOAUA! aldizkaria.....943 36 03 21
- Ertzaintza.....112
- Suhiltzaileak.....112
- Larrialdiak.....112
- Anbulantziak.....112

>> LANDABERRI ANTZERKI ESKOLA narkolepsia.com antzezlanak



urriak
31
asteartea
22.30
Sutegin

"Ramon, Eskolastika, Karmen, Ogi-saltzaileak, ... edozein pertsona bezala lo egiten dute baina lo egiteko ordua ez dute kontrolatzen. Beraien gaixotasuna azaltzeko terapia eguna iritsi da. Baina gaixoen begiak ixten diren momentuan Txanogorriku, Ama Birjina, Apaiza eta bestelako pertsonaiekin egingo dugu topo. Errealitatea eta fikzioarekin jolasteko aukera ematen duen antzezlanak da."

>> sarrera: 3€ / Noaualko Bazkideak doan<<

Sarrak eguneko berrari Sutegin edigai. NOAUALko bazkideek elkarteko egoitzan jaso behar dute antzerki salonerako gonbidapena, urriaren 30a baino lehen. Bazkide bakartzeko gonbidapen bakarra banatuko da.

>> JOSEBA TAPIA ZUZENEAN Real Politik diskoaren aurkezpena



azaroa
03
ostirala
22.30
Sutegin

Real Politik alemanezko terminoak historia luzea dauka, baina gaur egun "posiblearen politika" esan ohi dena adierazten du: utopiak ahaztu eta egin litekeena bakarik egitera ausartzen dira gure politikak... Joseba Tapiaren bakarkako laugarren lana da "Real Politik". Estatoko eta musikatzeko modu berriak eragiten ditu munduak eta badago zer kantatu eta horretan bertatu du bere soinua eta ahotsa Joseba Tapiak

>> sarrera: 8€ / Noaualko Bazkideak 5€<<

Sarrak salgai Txirristran. NOAUALko bazkideek elkarteko egoitzan jaso behar dute kontzerturako sarrera, azaroaren 2a baino lehen. Bazkide bakartzeko beharagandun sarrera bakarra salduko da.

JOSE AZPURUA
UNANUE

TELATUAK • FATURAK

Pintora kano 1-84, Irujoa-Ontu
943 36 17 83
Ondoa kano 18, Asieru
943 69 68 01

URDANTZI

943 32 72 64
649 43 54 75
649 43 54 76

ERRAZKIN

943 372 679
943 365 125
629 420 565
649 435 470
urki.mitxos@euskaltel.net

Josue
Aranzazistroki

943 360 550
606 372 105
JOSUE ARANZAZISTROKI

Antonio
URRUZOLA

Tel: 943 376 415
Faxa: 943 360 510
Astasuain Industrialea, 3

BEREZIARTUA
S.L.

egarra eta
egur-aluminiozko
leihak - eskailerak
Aginaga 143 371 571

BARRENETXE

Sakamendi Aragoi, Imanol
Tel. 943 362 664
Faxa 943 374 002
Barren Elxe Kalea
ZUBIETA

Javier
Orbegozo

Gasa-berokuntza
659 602 789
Enreka txiki 13, Bask

Jose txo
Ikatzeta

687 951 225

Lataillade

gasa, berogintza
klimatizazioak eta
mantenimendua
609 888 021

portularrume

Bainuko altzairuak
Manparak
943 364 637

JOSEBA
ARANGUREN

943 830 072
659 883 912

andoni
MARCOAK

605 702 517
Arrantzale p. 8-20

fernando
PINTURAK

enpapelaketak
lurzoruak...
943 366 019

IZAGIRRE

943 365 095
609 068 111
Gaz 424, ETXEA 37
KALEZAR

ARGILAN

Jose Luis Borda Zugasti
Industria instalazioak konponketak
943 361 380
629 272 859
Borda Berr 5 lathia

ofizioen gida

IGELTSERITZA

AROSTEGIAK

ITURGINTZA

PINTURAK

ELEKTROKITA

Gida honetan azaldu nahi baduzu: 943 360 321 • publizitatea@noa.com